

Euskaldun Fedea.

EUSKALDUN lagundi onek urtero oituratzen duben bezela, aurtengo Done Tomas eguneko arratsalde ta arratsian ere, egin ditu, ekiñ alde eder gain gañekuak euskerazko jostirudi egoki moldatutako bazuek aurkestaturik, eta zer esanik ez dago; bada jakiña dan bezela, izkuntz guriaganako arreta ta maitasun aundiyaren jabe diran emakumez eta gizasemez bete betia arkitu zan, Karrika Nagusiko antzoki pollit eta apaña.

¡Zer ederra ikusi zan antzokiko gela nagusiya! Utsune chiki bat ere etzan iñon ageri, guztiya zeguen matz mordo bat bezela tontor, tontorreraño mordoka bat egiñik eziñ zitekielarik orratz bat ipintzeko tokirik arkitu.

Lenagoko urteetako gisan egin dute aurten ere Antzoki Zarrera, agerkera, Gurmendi, Uranga, Ayestaran zanaren alargunak, Agirrezabal, Zuzuarregi, Andonegi, oek guztiyak sendi osoarekin, ta Toribio Alzaga, Adrian Loyarte, Karlos Echeberria, Luis ta Abelino Ayestaran, Assenzio Munarriz, Joakin Muñoz-Baroja, Luis Anoeta, Franzizko Loyarte, au bere bi alabakin, ta beste asko izenez oroitzen etzaizkitanak.

¡Zer atsegintasun aundikua izan zan Euskaldun Fedearentzat, ainbesterañoeko euskaraganako maitasuna egun ortan ikustearekin!

Lagundi ontako lagundar guztiyak pozaren bidez arroturik ikusten ziran ayeka guztiyetan.

Berriz ere arrotu ditezke bide eder oni jarraitzen diyoten bitartian, ta ez bitez aztu biziyak irauten diyen artian, zein izan zan euskaltasunean aitatzat ezagutu zuten Antonio Arzak jaun zanaren izenaz.

Aurtengo jai aldiyetan bi lagundar guchiyago ikusi dira antzokiko

iruditegiyan, ez oen gogua ala zalako, baizik ezin aratuak geldi arazi zituelako, bada chanda beltzak achiturik, egun guchiz onuntz gelditu da alargun iru umezurtzekin guztiz mindun, Felipe Kasal; eta gañera au bakarria aski ez dalarik, gaiñorik oyeratua dauka bere seme Pablo, lagundi ontako lagundar gaztea.

¡Zer egingo da! ¡Orlako chandari ezin aldegiñ! Opa deyogun luzaroko osasuna alargunari, ta Jaunari nai dagiyola lenbailen semia sendatu ta gure artian ikustia; gañera, Kasal-en emazte Ines Tejeria, Jau-nak bere kolkoko epeltasunean goza dezala.

Bañan, ¿zer lani ekin diyokan aldakik, altzaidu muñurra? ¿Bai? Orduan asi ari Done Tomas eguneko antzokiko berriyak ematen.

Arratsaldeko iruretan irten ziran erri batzarran echeko killikupietatik chistulari taldeak soñu alayak jo-az, eta iru t'erdietan Euskaldun Fedea-ko zuzendariyak agindu zuben chirriñ otsez, gora zedilla antzokiko iruditegiko eztalzapiya.

Agindu oni osakisuna eman bezin aguro agertu ziran iruditegian, Jose Marino Arrieta, Eskribaua; Migel Egino, Sekretariyua; Gregorio Beorlegi, Errejidorria, ta Jose Ganboa, Lukanbiyo aguazilla. Triku, Alkate-berriyari goramenak ematera.

Oek asi ziranian ojuka Alkate-berri Pepe Artola-ren eche atadiyan, irten zan onekin batera Antonio Irastorza afaitatzallia, ta Alkate ta gañuntzekuak aldegin zutenian, gelditu zan au bakarrik, bakar berri-keta bat egiñik.

Onen ondoren agertu zan Lorenzo egur saltzalle Ramon Echebeste, gero kanpotar Franzizko Mendiburu, ta geroago berriz Ramon Gelbenzu ijitua.

Denak egin zuten ekin aldi chit goitsu ta yayua, ta bukaeran gertatu zan chalo aundipean irudi zapiya jeistia.

Berriro irudizapiya goratu zanean, egin zan chistulari talde osoen soñu jotzezko gai neurtza, aurkesturik ontarako bakoitza bere chandan, Zumarraga-ko, Ernani-ko, Billabona-ko ta Zarauz-ko chistulariyak.

Guztiyak aritu ziran chit ondo. bañan sarituak izan ziran, Ernani-kua lenengo sariyarekin, ta aldeerarekin Zumarraga-kua, oetzaz gañera eman zitzaizten bi aipamen, Zarauz-ko ta Billabona-kuai.

Oek bukatu zuten bezin aguro, agertu zan Gregorio Beorlegi, ja-kiña zan bezela bakar, bakarrik, *Ero algara* izentzat daramakiyen bakarrizketa errenkada oen egilliak moldatuarekin; ta aiñ apainki, yayo ta garbiro esan zuben, non oraindik ere chaluak irauten duten. ¡Zer

ekin aldi ederra, jaunak! ¡Au bai dala egiazko ekindari, ta maisu aundiya! Onen esku utzi leike kezka gabe zer nai gauza. Ama batek, aur bat pichi ederrez jayetan bañon obetuago apaindu zuben, bere gain artu zuben eginkisuna.

¿Orain zer dator? A, bai, bai, Mariya, nere adiskide on ta leyal Jose Ganboa-ren jostirudi algaragai gain gañekua. Gai ontan sayo ederra egin zutenak izan ziran Rosario Artola, Bitori Arrieta, Irastorza, Mendiburu, Beorlegi, Gelbenzu, Echebeste, Eginu ta eskuan daukatan altzaidu muñur eta zotz onen jabea; ta zer ekin aldi arrigarrizkua egin zuben Gamboa-k egintza ontan! *Ori dek mutill zar gain beratua, ori.*

Chalo ugariyen jabe gelditu ziran sayo au bukatu bezin aguro, ta orduban agertu zan Euskal itz-jostaldien Batzarra, gai neurtzetan sari-tuak izan diranen izenak ezagungarritu, ta oen ereziak irakurtzera. Sayo au egin zuben, esan dan Batzarrea-ren goarpelari Toribio Alzaga jaunak. Eta bertsolariyen jardun-aldiyakin amaitu zan ikusdariyen poz kida aundiz, arratsaldeko jai aldiya.

*
* * *

Arratseko zortzi t'erdiyetan Euskaldun Fedea-ren aginduz idiki ziran antzokiko atiak, eta garaiz ta muga onez asiera eman ziyon arrabetari taldeak bere lanari.

Gero Jose Olaizola jaunaren *Markesaren alaba* deritzon abalizketa ederra aurkestatu zuben Euskaldun Fedea-k.

Gai ontan ere Rosario Artola, Bitori Arrieta, Felipa Uranga dama-chuak, gañera Beorlegi, Mendiburu ta Irastorza gizasemeak, aritu ziran gain gañeko mallara irichirik beren eginkisunetan.

Arroturik arki liteke Olaizola jauna bere egintza ederrez, eta antzokiyan zeudenetatik irten ziran goramenezko chalo ugariyakatik.

Au buka ondoren, ¿zer gertatzen zan, antzokiyan zeudenak alchazteko ain batetan beren aulkietatik?

¿Zer gertatuko zan? Negu bete betian arki arren, udaberri erdiyan geundela zirudiyen ainbeste karnaba kaško gorridun, edo Kantaritalde Donostiarra, agertu zanean iruditegira bere chitochuekin, Aita Otaño jakintsuaren «Suitevasca» deritzon euskal doñu sorta kantatzeko Esnaola maisuaren zuzendezko ardatzpean.

¿Nola egin zutela uste dezute oek beren ekin aldiya? Ni gai ontan jakinduri urriyetakua naiz, bañan zerbait dakitenak diyotenez, guztiz

egoki arituak izan biar dute, zergatik antzokiko gelacho, ta aulkiyetan arki ziranak, oraindik ere esku chaplanak minberatuak dauzke, chaloka aritze bakarrarekin; ta nik ere uste gabe bañan, eskuetako atz tartreak pitzatuak dauzkat bart ezkerero.

¡Bi gautan jaunak, bi gautan elkarren ondoren eztarriyak beartzen!
¿Eta zer? Euskal-erriko karnabak, oso pizkorrak dirala badakigu, bai, ta kito.

Eta, ¿iñork ezagutzen aldu, *Mocha Donostiyan?* Bada au ezagutzera iriñten ez danak, galdetu lezayoke Pepe Artola-ri, ta onek emango dizka bere berriyak.

Bart arratsian ler eztanda egiñik iduki ginduen betiko oiturik galdu gabe. Bañan, ¿beti ogei urteko galai gaztia aizela uste al dek, Pepe? Atzoko ire zankuetako chiñbiurrak beste gauzarik etziruditeken, mutill.

Ori dek ori sasoya, berrogei ta amar urte dituen gizonarena; eze-ren kezka gabe esan litekeek iregatik, beti gazte agertzen aizela non nai, ta atsegin aundiya artzen diat, nere kidako bat orla ikustiakin, ta urte askuan iraun dezaikela orlako sasoyak opa diat egi egiaz, eta biyotz biyotzetik.

Ingelatierratik, ¿ote dator orain Biñente? Bai zera. Miñter, Jorg, Pachi-ren anaya da, Londres-tik datorrena zerbait aberastuta, Pepe Artola-k diyonez, bart aurkestatu zan jostirudi ederki antolatutakoan.

¡Zer egoki ta yayo aritu ziran Euskaldun Fedea-tar guztiyak, ba-koitza bere eginkisunetan! Egintza onek dauzkan gai ugariyak chit goiki aterarik erabaki zituzten, Rosario Artola, Felipa Uranga ta Bitori Arrieta damachuak, eta gañera, Pepe Artola, Ganboa, Mendiburu, Irastorza, Beorlegi, Echebeste, Gelbenzu, Egiño, Manuel-cho Uranga, amabi urteko mutilla chalo ugariyen jabe egin zana, ta Bordachuloko Domingo Andonegi, gizasemeak.

Goramenak urte askorako Euskaldun Fedea, ta Euskal itz-jostaldien Batzarra-rentzat; ta ezertan utsegiterik egin badu errenkada oen egi-lliak, izazute denak bereganako errukiya, ta barkatu.

Bertsolariyen jardun aldiyakin bukatu zan chalo aundipean aur-tingo Done Tomas eguneko euskal jaya.

JUAN IGNACIO URANGA